

ALEGIA ▶

Etzirako abestien moldatzaile

Angel Unzu iruindarra da ▶ 5



Baserriko produktuak, bestelako janariak eta artisauak, etzi Zizurkilen

AZOKA ▶ VII. Azoka Berezia egingo dute egun osoan zehar; txahal errea izango da bazkaltzeko

GAIAK ▶ EBELek emango du saria eta 'Iturrian zer dago?' bertso eta dantza ikuskizuna izango da ▶ 4

BELAUNTZA ▶

Xabier Zabala sukaldaria goi mailan da Txilen

Arrainen inguruko sukaldaritzaz ari da liburua idazten ▶ 6



Ulu elektrikoen oihartzuna ozenago entzungo da aurrerantzean

TOLOSA ▶ Lobo Electrico musika talde tolosarrak bere lehen diskoa aurkeztu zuen atzo Donostian. ¿Has visto al lobo eléctrico? du izena eta Bonberenea Ekintzak zigiluarekin argitaratu dute. Euskal Herrian jo ondoren, azaroan Japoniara joango dira eta abenduan hainbat emanaldi dituzte Espainian. LEIRE MONTES ▶ 2



Nº D.G.S J.1759

KOTXE ASEGURUAK **ASEGUROAK**

ZIKLOMOTOREAK **BEHERAPENAK**

MOTOAK **-% 55 arte**

KAMIOIAK ...

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462
Jose Maria Iturriotz, 14 • 20200 Beasain • Tel. 943 08 56 00
www.saldias-miguel.com

LEITZALDEA ▶

Usoen zain dira ehiztariak hegietan

Zaletu ugari dago eskualdean ▶ 7

www.landrover.es



Freelander Td4 manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. CO₂ isurketak : 205 g/km

FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

EUROLAN 4x4

Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
TeleFonoa: 943 33 10 06 • www.eurolan4x4.com

MUSIKA ▶

Ulu elektrikoaren oihartzuna

Kalean da '¿Has visto al lobo eléctrico?', Lobo Electrico taldearen lehen iraupen luzeko lana; Bonberenea Ekintzak zigiluarekin argitaratu dute diskoa tolosarrek



Lobo Electricoko kideak; ezkerretik, Conde Electrico, Perrolobo, Dr. Magma eta Capitan Sarraceno. L. MONTES

LEIRE MONTES

Ozenago entzungo da, aurrerantzean, otso elektrikoaren uluen oihartzuna. Atzo aurkeztu zuen Lobo Electrico taldeak *¿Has visto al lobo eléctrico?* diskoa, bere lehen iraupen luzeko lana. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Hemendik aurrera, han eta hemen zabaldu nahi dituzte zuzeneko uluak.

Bonberenea Ekintzak-ekin kaleratu dute diskoa tolosarrek. Zigiluaren zazpigarren ekoizpena da, hain zuzen ere, *¿Has visto al lobo eléctrico?* lana. Grabaketa ere Bonbereneako estudioetan egin zuten, uztailen: «Genituen kantuekin diskoa ateratzeko gogo handia genuen, eta Bonbereneako estudioak asko lagundu digu. Etxean bezala eta lagun artean grabatzeko ilusioa genuen, eta hala izan da», azaldu zuen Lander Zabazak, Capitan Sarraceno taldekideak.

Diskoa salgai da dagoeneko Bonberenean eta zenbait denda eta tabernetan; etxearen webgunearen bidez ere, www.bonberenea.com, eros daitezke. Orain, zuzeneko emaldiak egingo die taldeak. Urriaren 31n, igandea, eskainiko du Lobo Electrico-k lehen kontzertua, Bukowski tabernan, Donostiako Egia auzoan. Gero, Euskal Herrian egingo dute bira.

Azaroaren 4tik 15era, berriz, Japoniara joango dira Tolosakoak; hango hiri garrantzitsuetan bost kontzertu eskainiko ditu taldeak. Bonberenea Ekintzak zigiluko Patxi Muñoaren esanetan, etxean jo izan duten Japoniako taldeekiko harremana dela-eta sortu da hara joateko aukera: «Azkeneko lau urteotan Japoniako hainbat talde izan dugu Bonberenean. Harreman estua dugu haiekin, baita beren managerrarekin ere. Hari egin genion Japoniara joateko proposamena, eta gus-

tura onartu zuen. Trukea dela esan genezake».

Abenduan, bestalde, Kataluniatik eta Espainiatik egingo dute bira Lobo Electrico-koek: besteak beste, Bartzelonan, Gironan, Zaragozan eta Madrilan joko dute.

1999. urtean sortua

Lobo Electrico taldea 1999. urteko udazkenean sortu zen, «jendaurrean jotzeko eta kantuar egiteko asmoz». Jorge Perrolobo baxua, Shanti Magma ahotsa —Ruido de rabia taldearen aritzen ziren biak—, Iker Conde Electrico gitarra —Perros Deshidratados taldean josten zuen orduan— eta Iñaki bateria ziren taldekideak. 2000ko abenduan egin zuten lehen jendaurreko emanaldia, Bonberenean.

2001. urteko udaberrian Lander Capitan Sarraceno hasi zen bateria jotzen, Iñakiren ordez. Urtebete ondoren

FITXA ▶



Izenburua. *¿Has visto al lobo eléctrico?*.

Taldekideak. Perrolobo: baxua, koroak eta txaloak; Dr. Magma: ahotsa, koroak eta pandereta; Conde Electrico: gitarrak eta koroak; eta Capitan Sarraceno: bateria, txaloak eta pandereta.

Artista gonbidatuak. Arturo NCC eta Betterthanbeth: koroak.

Artwork. Baxi Ubeda, Screech Master, Onik eta Lobo Electrico.

Argazkiak. Amets Iriodon eta Laura Tätilä.

Hitzesizulpena ingelesara. Agus Tena.

Grabaketa. Bonbereneako estudioan, uztailaren 7tik 16ra. Irunen nahastua eta masterizatua, abuztuaren 19tik 31ra. Calos Txap Osinagak grabatua, nahastua eta masterizatua.

Zigilua. Bonberenea Ekintzak.

Oztopo guztien gainetik Bonberenea bilduman parte hartu zuen taldeak.

Aurtengo urtarrilean bere lehen lana kaleratu zuten tolosarrek, Beza Malandra zigiluarekin; binilo urdinezko single bat zen, bi kantuz osatua. Bilboko Chocablock estudioetan grabatu zuten. Kaleratu berri duten *¿Has visto al lobo eléctrico?* da, beraz, taldearen lehen iraupen luzeko lana.

ERLIJIOA ▶

Otoitzaldia, bihar, Santa Maria parrokiaren

Pastoral ikasturteari hasiera emateko, otoitzaldia egingo dute, bihar, Santa Maria parrokiaren. Imanol Aldaregiak emango du, 10:30etik 12:00-etara, euskaraz. Erretirora joan nahi duenak 10:00etan parrokiako sakristia handiko kaperara jo besterik ez du.

DEIALDIA ▶

LAB-ek deitutako manifestaziorako autobusak

Euskal Herriak burujabetza ekonomikoa lelopean, manifestaziora deitu du biharko Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB). Bilbon izango da mobilizazioa, 17:00etan. «La Naval, Babcock eta beste hainbat enpresa ez ixteko» eskatuko dute bertan, eta, era berean, «8.000 lanpostu baino gehiago arriskuan» daudela salatu. Tolosan manifestaziora joateko autobusak antolatuta dituzte: interesa duenak LAB-eko egoitzatik (Pablo Gorosabel) pasatu behar du, edo 943 67 00 26ra deitu. 15:00etan aterako da autobusa, Triangulotik.

BONBERENEA ▶

Gaur musika eta bihar 'graffiti'-ak eta 'skate'-a

Era guztietako ekitaldiak izango dira asteburuan Bonberenean. Gaur, Kauta eta Sei urte taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30ean. Eta, biharko, egun osoko festa antolatuta dute: 10:00etan graffiti erakustaldia, skate txapelketa DJ-ekin 16:00etan, eta Afrika eta Bad Sound Sistem taldeen emanaldia, 22:30ean.

HEZKUNTZA ▶

Guraso Eskolako lehen hitzaldia Orixe institutuan

Orixe institutuko Guraso Eskolak ikasturteko lehen hitzaldia antolatu du astearteko. Xabier Tolosa orientatzaileak Bigarren nerabeen dauden gazteen ezaugarriak izango ditu hizpide. 4. DBHko eta 1. eta 2. Batxilergoko gurasoei dago zuzenduta saioa. 19:00etan, liburutegian.

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak.

Lanpostu libreak bete behar dira: Hernani, Usurbil, Beasain, Errenteria. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Gidariak. Hamar lanpostu bete behar dira: Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Oreta, Antzuola, Legazpi. Informa zaitz eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu

telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Ostalaritza. Sukaldariak, zerbitzariak, sukalde laguntzaileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Ertzaintza. 200 lanpostu bete behar

dira. Baldintzak: Eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre. Datozen inkomporazioak. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Mantenimendua. Arotzak, igeltseroak, elektrizistak, pintoreak

eta peoiak. Lanpostu finkoak udaletan. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Udaltzaingoa. 19 lanpostu bete behar dira: Hondarribian, Irunen, Arrasaten, Beasainen, Ordizian, Oñatin, Mutrikun eta Eibarren. Informa zaitz dohainik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

POLITIKA ▶



Sinadura bilketa kanpainaren berri emanez, agerraldia egin zuten hainbat tolosarrek herenegun. HITZA

«2.500 tolosarrek ez dute ordezkazarik»

Tolosa Bizirik plataformak Udalean behar duela babesteko, sinadura bilketa egingo dute hainbat herritarrek egunotan

IRATXE ETXEBESTE

Tolosa Bizirik herri plataformak sarritan salatu du udal hauteskundeetan herritarrek emandako botoen arabera ordezkazarik ez dutela bere hautetsiek Udalean. Ildo bereetik, askotariko ekimenak antolatuta duela urtebetetik egoera hori salatzen. Bada orain herritarrek dira egoera horri irtenbidea eman behar zaiola uste dutenak, eta Tolosako Udalak herritarren zati baten ordezkariak bermatzen ez duela salatzen prentsaren aurrean egin zuten agerraldian horien esan zuten herenegun hainbat tolosarrek. «Azken udal hauteskudeen ondoren, 2.500 tolosar berez dagokien ordezkariarik gabe utzi dituzte Tolosako Udalean. 2.500 tolosar horiek kalean, etxean, lagunartean, lantokietan, ikastetxeetan daude, baina udal txean falta dira. Harrezkero behin baino gehiagotan adierazi dute tolosar guztiek behar dituztela beren ordezkariak Udalean. Salatu ere salatu dute kolore guztiak ez daudela he-

rriko erakunde nagusian, eta 2.500 tolosar ikusezin bihurtu nahi dituztela».

Izan ere, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak legez kanpo utzi zuen herri plataformak Udalean behar duela babesten dutenen irudiko «Tolosak denon beharra du; tolosar guztion beharra», eta herritarren bozken arabera zinegotzi behar luketena Udaletik kanpo egonda, «herritarren eta hautetsien eskubideak ez dira inondik inora bermatzen».

«Urtebete baino gehiago joan da egoera hau sortu zutenetik, 2.500 tolosar kolpe batez desagerrarazi nahi izan zituztenetik, eta denbora honetan ez dituzte beren eskaerak aintzat hartu». Egoerari irtenbidea emateko bidean Tolosa Bizirik-eko kideak behin baino gehiagotan udal ordezkariekin hitz egiten saiatu direla, baina saiakera guztiak hutsaren hurrengo izan direla esan dute herritar horiek: «Orain arteko saialdi guztiak alferrikakoak izan dira, eskaerak zuzenean eta irmotasunez eginda ere».

Horregatik, eta egoerari lu-

KANPAINA

Sinadurak biltzeko kanpaina abiarazi dute; bihar hasi eta hiru larunbatez mahaia jarriko dituzte kaleetan

zeegi irizten diotelako, sinadurak biltzeko kanpaina abiarazteko asmoa agertu dute tolosarrek. Bihar hasita, hiru larunbatez mahaia jarriko dituztela iragarri dute Tolosako kaleetan eta auzoetan, ahalik eta sinadura gehien biltzeko. Hiru aste barru lortzen dituzten sinadura guztiak «dagokien erakundeetan» aurkeztuko dituzte, «bidezkoa ez den egoera honi, behingoz, konponbidea emateko».

Egoera horrekin desadostasuna agertu nahi duten tolosar guztiei deia egiten diete kanpainaren sustatzaileek prestatu dituzten eskuorriak sinatu ditzaten, «kolore guztietako tolosarrek kanpaina honetan parte hartzea behar dugulako beren sinadura emanez».

OSTALARITZA ▶

Babarrunaren Pintxo Lehiaketa egingo dute

Izen-ematea zabalik da azaroaren 4a arte; 12na euro ordaindu behar dute partaideek

I. ETXEBESTE

Tolosako Udalaren Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Departamentuak Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du azaroaren 19a eta 21a bitartean, Babarrunaren Astearekin batera.

Lehiaketa izena emateko epea zabalik da azaroaren 4a bitarte, eta bertan parte hartzeko Tolosako babarruna oinarritzko osagai duen pintxo bat aurkeztu behar dela esan dute antolatzaileek. Tolosako babarruna erabili izana frogatu egingo dute, gainera, Babarrunaren Ekoizleen Elkartearen bidez.

Bestalde, antolatzaileek baldintza batzuk finkatu dituzte lehiaketa parte hartu nahi dutentzat: esaterako, parte-hartzaileak era egokian identifikatuta egon beharko du, promozioaren kartelak ikusgai edukiz eta identifikazio txartela parte hartzen duen pintxoaren azpilaren gainean ipiniz. Gainera, pintxoek barran egon beharko dute azaroaren 18an, epaimahaiko kideek pintxoak behar bezala dastatu ahal izateko. Parte hartu nahi duten tabernariak 12na euro ordaindu beharko dutela adierazi dute antolatzaileek, bestalde, eta diru kopuru hori izena ematerakoan bertan ordaindu beharko dela.

Lehiaketarako bi kategoria zehaztu dituzte, gainera, Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuko ordezkariak: pintxorik hobereana sarituko dute alde batetik, eta pintxoaren aurkezpen hobereana, bestetik. «Bigarren aukera hori aurrez prestatuta dagoen oinarri bat erabilita parte hartu nahi duten establezimenduei dago zuzenduta», esan dute antolatzaileek.

Nolanahi ere, bi aukeretan hotza edo beroa izan daiteke aurkeztu den pintxo: alegia, aukerazkoa izango da hori,

DATUAK ▶

PINTXO LEHIAKETA

Izen-ematea. Zabalik da azaroaren 4a bitarte, Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Departamentuan. 12na euro ordaindu behar dira parte hartzeko.

Baldintzak. Tolosako babarruna oinarritzko osagai duen pintxo bat aurkeztu behar da eta era egokian identifikatuta egon beharko dute parte-hartzaileek.

Pintxoak. Hotza edo beroa izan daiteke, baina mokadu batean jateko modukoa eta osagai guztiak jangarriak dituen behar du izan.

baina maneiagarria, mokadu batean jateko modukoa, eta osagai guztiak jangarriak dituen beharko du izan, ezinbestean. Aukerazkoa izango da baita ere pintxoak ogi gainean edo ontzi edo tresna baten gainean aurkeztea.

Tolosako hainbat elkartetako ordezkariak osatuko dute epaimahaia, eta emaitza lehiaketaren egun berean emango dute; azaroaren 18an, lehiaketara aurkeztu diren pintxoak ikusi eta dastatu ondoren. Irabazten duen establezimendua azaroaren 21ean, igandearekin, jasoko du saria, Ferialekuan egingo duten herri bazkariaren ostean.



Babarrun pintxoak. L. MONTES



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ZIZURKIL ▶ AZOKA BEREZIA

JOXEMI SAIZAR

Egun osoko festa prestatu du Zizurkilgo Udalak Festa Batzordearen laguntzarekin igandarako. Herriko baserritarrak eta bere produktuak izango dira protagonista nagusiak. Herriko sei baserritako produktuak egongo dira VII. Azoka Berezian. Kanpotik etorritako beste 11 janari postu izango dira eta beste 18 artisau ere izango dira bere lanak erakusten, tartean herriko Josune Aranburu (lore ihartuak), Juani Alkorta (koadroak) eta Pili Ugartemendia (koadroak) eta Villabonako Manex Azurmendi (bitxiak). Urtero zerbait berezia egiten saiatzen dira eta aurten Belenzaleen Elkarteko ariko dira lanean azokan.

«Normalean herriko baserritarrak ez dira azoketara joaten, baina herriko hau bereziki prestatzen dute. Batzuk tradizioa badute, baina beste batzuk berriagoak dira. Adibidez 14 urteko mutiko batek ilusio handiz prestatzen du bere postua», dio Ainhoa Azpeitia antolaketa taldeko kideak.

Txahal erre jatea

Aurten lehen aldiz, goizean goiz herriko Andrezketa baserriko txahala erretzen jarriko dute eta eguerdian pintxotan banatuko dute eta bazkarian jango dute. Zimenteyuan izango da bazkaria eta 150 lagun inguru elkartuko dira.

Aurreko urteetan bezala, autobus zerbitzu berezia jarri dute doan, etengabe Pasusetik Zizurkil Goiko plazara, egun osoan zehar. «Zizurkil Goian aparkaleku gutxi dago eta etorri behar dutenei zerbitzu hori erabilitea eskatzen diegu, beste urteetan bezala», adierazi du Azpeitiak.

Azoka bereziaren ordutegia

Herriko produktuak izango dira azokako protagonistak etzi

Igandean VII. Azoka Berezia izango da egun osoz; artisauak eta 'Iturrian zer dago?' bertso-dantza saioa ere izango dira



Baserritarren eta artisauen postuak ikus ahal izango dira azokan; argazkian, iazkoa. GARAZI AZKUE

11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:30era izango da, plazan bertan. Horretaz gain beste ekitaldi batzuk izango dira. Eguerdian EBELek (Emakume Baserritarren Elkartea) Juan Gorritik egindako *Baserriko argia* eskulturaren bigarren urtebetetze ekitaldia prestatu du. Hainbat herritan zehar erakutsi duten antzerkia eskainiko dute bertan.

Emakume baserritarrak

Onoren herriko janari postu onenari *Baserriko argia* saria emango dio EBELek. Elkarte honek ere bere postua jarriko du, urtero bezala, garai batean emakumeek baserrian egiten zituzten lanak erakusteko: artirina xehetu, taloa egin...

Herriko baserritarrez, gain beste 13 janari postu izango

dira azokan, eta horien artean daude eskualdeko Aldaba Zahar elkartearen produktu ekologikoak, Zizurkilgo Lur-lan eta Leaburuko Maalako esneki eta txerrikiak. Pastak, hestebeteak, eztkia, gazta, orenkia eta beste elikagai asko ere izango dira ikusgai eta erosgai.

Arratsaldean, egunari bukatu emateko, beste ekitaldi berezia izango da Zizurkilen, In-

EGITARAUA ▶

11:00-14:30 eta 16:00-19:30. Baserriko produktuak eta artisauak.
12:00. *Baserriko argia* eskulturaren bigarren urtebetetze ekitaldia EBELen eskutik.
13:00. *Baserriko argia* saria Zizurkilgo jaari postu hoberenari.
14:00. Txahal erre jatea Zimenteyuan.
19:00. Iturrian zer dago? dantza-bertso emanaldia Xukan taldearen eskutik. Bertsolariak: Peñagarikano eta Egaña; dantzariak: Iban Agote, Kimetz Larrañaga, Aitor Sorazu, Ainara Olamuru eta Idurre Salvador.

AUTOBUSA

Pasusetik Zizurkil Goiko plazara etengabe autobus zerbitzua izango da doan, egun osoan zehar

POSTUAK

Herriko 6 baserritarren barazkiak, beste 11 janari postu eta 18 artisau elkartuko dira azoka berezian

txaur pilotalekuan. Xukan taldeak *Iturrian zer dago?* dantza-bertso ikuskizuna eskainiko du. Emanaldi hau herriz herri ibili da eta bertan parte hartzen dute goi mailako bertsolariek eta dantzariak.

Aurreko urteetan, «mahiz eta eguraldi txarra izan» jende asko bildu da azoka berezi honetan, eta aurten ere hala espero dute.

Tolosaldeko eta leitzaldeko
berriak euskaraz



Euskal Herriko eta mundu zabaleko
berriak ere euskaraz



Aukeratu euskarazko prentsa!

Informazio gehiagorako:
943 30 43 46 edo harpidetza@hitza.info

ANGEL UNZU ▶ MUSIKARIA

«Zaila da oso ezagunak diren abestien moldetik ateratzea»

Txintxarri abesbatzek etzi eskainiko duten musika emanaldiko abestien moldaketa egin du Angel Unzuk

OLAIA ESKITXABEL

Hamabost urterekin gitarra josten hasi zen Angel Unzu iruindarra; orduz geroztik, musika izan da bere bizitzaren ardatz nagusia. Egun, gitarra jole bakarlarri gisa kontzertuak eskaintzen ari da; hori da bere lanik «pertsonean»; Argentinako jaialdi batetan parte hartu du orain dela aste batzuk. Horretaz gain, Benito Lertxundirekin eta Mikel Markezekin ari da lanean. Alegiako Txintxarri abesbatzentzat ere hainbat moldaketa gauzatu ditu; lan horren emaitza, etzi, igandean, 12:00etan izango da entzungai Alegiako San Joan Bataiatzailearen elizan.

Nolatan sortu da Txintxarri Egunerako prestatu duzun musika emanaldi bereziaren ideia?

Txintxarri abesbatzako zuzendaria den Garbiñe Orbegozorenkin harremana nuen eta berak hainbat abesti herrikoiren moldaketa egiteko proposamena luzatu zidan. Txintxarri abesbatzek musika tresnekin abesteko gogoia zutela eta ea partituren moldaketa egingo nuen galdetu zidan. Eta nik, oso gustura, baiezkoa erantzun nuen.

Txintxarri Egunean eskainiko

AHOTSA

«Musika tresnekin lan egiten ohituta nagoenez ahotsarekin lan egitea konplexuagoa suertatu zait»

TXINTXARRI EGUNA

«Ohiko abesbatzen kontzertuetatik bereizten den emanaldia ikusteko aukera izango da»

diren abesti guztien moldaketa instrumentala egin duzu, ezta?

Bai. Abesti batzuk, lehendik erreperorioan zituzten; besteak, *Trapu zarrak* abestia, esaterako, moldatzeko eskatu zidaten. Beraz, ahots bakarrera zeuden abestiak lau ahotsetara moldatu ditut eta horretaz gain, emanaldian entzungo diren abestiei musika tresnak gehitu dizkiet, pianoa, bateria, baxu elektrikoa eta klarineta, hain zuzen ere.

Zein ikutu eman diezu abestiei?

Ez dago estilo zehatzik; horretan, gainera, zailtasunak izan ditut. Izan ere, abesti asko oso ezagunak dira; *Eperra* abestia, esaterako, Anje Duhalderekin taldean nengoela urte askotan jo dudana abestia da. Zaila da oso ezagunak diren abestien moldetik ateratzea; betiko estilotik gehiegi aldentzea ere oso arraro geratzen da. Hor puntua hartzea kostatu zait.

Konpositore bezala, ezaguna da zuren lana; baina abesbatza batekin lan egiten duzun lehenengo aldian dela azaldu duzu.

Horrela da; eta gogo handia nuen. Esperientzia bitxia izan da; ni musika tresnekin lan egiten ohituta nago eta ahotsarekin lan egitea konplexuagoa suertatu zait. Ahotsa, musika tresna konplexuena da. Lanean aritu naizen bitartean Garbiñe Orbegozo zuzendariarekin kontaktu zuzenean egon naiz askotan, sopranoak noraino heltzen diren... eta antzeko zalantzak argitzeko.

Trapu zarrak abestiaren partitura estreinatuko da etziko emanaldian. Erraza suertatu al zaizu lan hori egitea?

Oso eroso sentitu naiz iparragireren abesti horren moldaketa egiterakoan; oso ezaguna den arren, erraz egin dut abesti horren moldaketa. Asko gustatzen zaidalako, agian. Abestiak duen melodiarengaitik eta



O. ESKITXABEL

armoniarengatik inspiragarria suertatzen zait.

Zein inpresio izan duzu entseguetan zuren lana entzun duzunean?

Lehenengo entsegua musikariek egin genuen eta oso ondo geratzen zela iruditu zitzaidan. Bigarren entsegua, berri, abesbatzarekin eta musikariek egin genuen. Sentsazio onarekin geratu nintzen.

Igandeko emanaldian gozatzeko besterik ez da geratzen orduan.

Urduritasunak askotan ez ditu mementuaz gozatzen uzten; eta, nire lana amaitu den arren, abesbatzetako kideak, zuzendariak, musikariak... bezalaxe emanaldia behar bezala ateratzeko argi egongo naiz ziur asko.

Zerekin topatuko dira ikusleak Txintxarri Eguneko emanaldira joanez gero?

Musika emanaldi atsegina eta erakargarria prestatu dute; ondo abestutako eta zuzendutako emanaldia izango da. Eta, batez ere, ohiko abesbatzen kontzertuetatik bereizten den emanaldia izango dela aipatuko nuke. Kontzertura joateko nahikoa arrazoi badira, ezta?

HAINBAT DATU ▶

Angel Unzu gitarra jole eta konpositoreak esperientzia zabala da musika arloan:

Bi diska. Bakarkako bi disko kaleratu ditu Unzuk. 1996ean *13 solos* lana argitaratu zuen; iaz, berri, *Melodias de piel* deritzona. Beste kantari eta musikariek moldaketak eta sorkuntza lanak egiten aritzen da.

Produktore lanean. Hainbat diskotan produktore lanetan aritu da: Olatz Zugastiren *Bulun-bulunka*, Alaitz eta Mainerren *Auskalo* eta Benito Lertxundiren *Nire ekialdean*, besteak beste.

Antzerki taldeak. Antzerki taldeentzat lan ugari egin ditu. Markeliñe, Ttianttaka, In fraganti eta Golden Apple Quartet taldeekin aritu da lanean.

Musikari gisa. Gubxi gora behera, 60 diskotan hartu du parte. Izen handiko artistekin eta taldeekin jotzeko aukera izan du: Kepa Junkera, Amaia Zubiria, Iñaki Salvador, Anje Duhalde, Mikel Markez...

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etb: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte C.: Korreo kalea, 20 (Tolosa). 943 67 60 13
Erbiti: Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aitzondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Tolosa. Urriaren 9an argazki kamara galdu genuen Igarondo kalean (bialean). Inork argibiderik badu, deitu 650 69 24 57 telefonora.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Tolosaldeko taberna batean, lau orduz lan egiteko. 943 69 43 13 telefonora deitu, 14:00etatik 15:00etara.

SALGAI

Autoa. Peugeot Partner txuria; 1.900 Diesel. Oso egoera onean. Deitu 609 84 61 57 telefonora.

BELAUNTZA ▶ SUKALDARITZA

Txileko sukaldaritzan maila gorenean da Xabier Zabala

Chef onenaren saria irabazi eta liburu bat idazten eta kurtsoak ematen ari da

IÑIGO TERRADILLOS

Xabier Zabala Peña 1979. urtean abiatu zen Hego Amerikara. Mexikon aritu da zazpi urtetan lanean eta Txilen finkatu da azkenean. Bertan, lau jabetxe zabalduak ditu.

Kostan dagoen Quintay herriaren Pescadores de Quintay izeneko jabetxe orain zortzi urte zabaldu zuen. Jabetxe honetan lana egiteaz gain, itsasoa aurki daitezkeen arrainen inguruan ikerketa zabala egin du. Aztertu gabe zeuden hainbat espezie topatu ditu eta hauek sukaldean sartzea izan da hurrengo pausoa.

Horrela, Txilen ezagutzen ez zuten arrainekin plater gozoak prestatzea lortu du eta hori izan dela esan daiteke bere arrakastaren zergatieta bat.

Egun, Santiago hiriburuan bizi da, pasa den urtean Infante 51 izeneko jabetxea ireki zuenetik.

Aurtengo maiatzean iritsi zitzaion egiten ari den lanaren ordainsaria, sukaldariburu edo chef onenaren urteko saria eman baitzuen Txileko Gastronomía Kritikoen Elkarteak.

Zazpi sardexka dituen jabetxea da Infante 51 eta arrainak

prestatzen dituzten jabetxe onenaren saria ere eman zioten bertan egiten duten lanagatik.

Punturik gorenean

Profesionalki bizitzako mailarik gorenean aurkitzen dela esan behar da; sukaldaritzan izena lortu du, Txileko irratian bere saioa du, arrainen inguruko liburu bat ari da prestatzen eta kurtsoak ematen ditu.

Une honetan Txilen egon arren eta itsasoak banatzen bagaitu ere, HITZAREKIN bere bizitzaren inguruan mintzatzeko tartea egin du Xabier Zabalak.

Oso gustura bizi dela Txilen dio, bertako bizimodura ohitu dela eta urtetan han jarraitzeko asmoa duela: «Zahartutakoa bueltatuko nintzateke berriro nire jaioterrira, Euskal Herriara», dio sukaldariak.

Bestalde, «etxera bisitan etortzen naizenean amari uzten dizkiot sukaldeko lanak, horrela, txikitzen prestatzen zizkidan platerak oroitzen ditut», dio. «Arrainetan berezitatearen amonagatik dela uste dut, mutrikuarraz izanik arrain asko prestatzen baitzigu», eta «su-



Urteko sukaldari onenaren saria eman zioten unean. HITZA

kaldean ikasten ere amona eta amak egiten zituzten errezetarik hasi nintzen, hasieran horiek prestatuz hasi eta gerora arrain mota berriekekin probatu eta esperimentatzeari ekin banion ere».

Euskal Herrian egiten den eta Txilen egiten duen sukaldaritzaren inguruan dioten araberako, «alde handia dago guk egiten ditugun platerekin, sinpleagoa da gurea,

garbiagoa eta produktuari bereziki garrantzi handia ematen diogu».

Bere jabetxeetan euskaldun askoren bisita izan duela aipatzen du Xabier Zabalak, «Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea eta beste ordezkari batzuk izan dira, eta bestela ere, herriarteko asko joan da, baita Ameriketako bizi diren euskaldunak ere kuriositatez, sariak irabazi eta gero».

GAZTELU ▶

Herriko taberna ustiatzeko aurkezpena

Onartu berri den pleguaren arabera, Gazteluko udaltxearen eraikinean (Kontzejun) kokatutako taberna zerbitzua ustiatzeko eskaintza aurkeztea luzatzen da. Pleguak eskuratzeko eta informazio gehiagorako udal bulegoetara joan beharko da. Bestalde, proposamenak aurkezteko epea astelehena, urriak 25, izango da.

BERASTEGI ▶

Guraso Eskola antolatzeko asmoa

Berastegiko Guraso Elkarteak Guraso Eskola antolatzea nahi du. Saioak astelehenean izango dira eta ordutegiari dagokionez bi aukera daude: 14:30etik 16:00etara edo 21:00etatik 22:30era. Izena eman nahi duenak bere seme edo alabaren tutoreari eman beharko dio urriaren 26a baino lehen. Bertan, bere datuekin batera zein ordutegi datorkion ondo zehaztu beharko du, eta biak ere ondo badatorzkie aipatzea gomendatzen dute.

LIZARTZA ▶

Ezker abertzalearen batzarra bihar

Lizartzako ezker abertzaleak bihar batzarra izango dela adierazten du. Bertan, azken 10 urtetako balantzea egingo da, gaur egungo egoera politikoa aztertu eta aurrera begirako asmoak azalduko dira. Batzarra 16:00etan izango da Lizartzako udaltxean.

BERASTEGI ▶

70. hamarkadako herri afaria Urepelen

70. hamarkadan oinarrituriko herri afaria egingo dute bihar Berastegiko pentasuzalearen etxean. Mozorrotuta joan beharko da eta aukeraketa errazago izan dadin garraio argazkiak ipini dituzte Urepele elkartearen Bestalde, gaur, Urepele elkartearen Yo-yes pelikula izango da ikusgai 22:00etatik aurrera.

Belauntzatik Txilera

Xabier Zabala duela 46 urte jaio zen Andoainean. Zortzi urte zituela Belauntzara etorri ziren bizitzera, eta han bertako paper fabrikari hasi zen bere aita lanean. Tolosaldeko Eskolapioen ikastetxean ikasi zuen eta ondoren Orixe institutuan. 18 urte beteak zituela Valladolidera (Espainia) joan zen medikuntza ikastera.

Karrera bukatzeko asmoz Mexikora joan zen, eta behin han zegoela, itzuli bat eman zion bere bizitzari.

Gurasoek jabetxe bat zabaldu eta bertan hasi zen sukaldari moduan lanean.

Medikuntza utzi arren, ikasketekin jarraitu zuen eta Antropologian lizentziatu zen Mexikon.

Amerikako hainbat lurralde desberdinetan aritu da lanean, eta azkenean Txilen finkatu da. Bertan lortu ditu, jabetxe desberdinetan egindako lanagatik batez ere, sona eta os-



Xabier Zabala sukaldean. HITZA

pea. Horrez gain, Txileko irratian bere saioa du sukaldaritzari buruz, eta errezetak edo aholkuak ematen ditu.

Azkenaldian, liburu bat prestatzen ari da, bere berezitasuna diren arrainen inguruan; Txileko itsasoa aurki daitezkeen arrain desberdinen azalpena emango du.

asteazkenero BERRIekin ostegunero zure unibertsitatean

Gazteon astekari berria

KIROLA ▶

Usoen zain hegietan

Gure herrietan ez dago orain jolaserako beste konturirik; etxe guztietan bada norbait ehizerako zaletasunarekin eta hizpide dira nonahi



Egun guztian postutik atera ere egin gabe egoten dira, zain, ziztu hotsa noiz entzuten. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Udatzena, udako berotik neguko hotzera igarotzeko zubi da. Urtaro hau, udaberrian ereindako hazietatik eta loratutako landareetatik sortutako fruituak bildu eta jasotzeko tenorea da batez ere nekazari eta abeltzaintzat, gerora, laister, etorriko diren elurte zurietan, suaren be-roan ez bada, aterpe ziurrean behinik behin, horietaz baliatuzko: banabarra, artoa, gaztaina, istorra... Egin behar hauen guztien laguntzaile izaten da, urteko garai honetako ezaugarri den hego haizea. Haize be-roaren indarrez ondukatu izata jasotzea bezalakorik...

Hala ere ez dira landareak bakarrik aldaketak jasaten dituztenak, izan ere aziendak ere, basokoak, negurako prestatzen aritzen baitira eta beste batzuk, hegaztiak batez ere, lurralde beroagoetarantzko bidaia luzeari ekiten diete, hauen artean usoek.

Eta urrian, hego haizearekin batera usoen migrazioak bat egiten dutenean, urtaro honetako beste ezaugarri bat gai-

lentsen da gure herrietan: uso ehiza. Zahar eta gazte, halako eta holako, ikaragarria da horretarako dagoen zaletasuna. Ez da beste konturik entzuten kalean, dendan, tabernan... Azkenik ehiztari ez denak ere gutxi-asko, horretaz hitz egiten du noizbait.

68 bazkide Areson

Izan ere asko dira, egiaztatu izan denez, Areson, 68 bazkide dituzte elkartek, gazteak asko eta sutsuenak ere bai, «urteko opor guztiak garai honetarako gordetzen dituenik bada», argitu digute, eta 37 uso postu dituzte. Gaiñarbe, Museo-Gofi, Peña eta Perratokitako mendi hegaletan eginak. Txandan-txandan, bikoteka, lehen egunerako zein suertatzen den zozketa egin eta «postu korrituan», denetara joateko aukera izaten dute. Egunero, 3 postu hutsik gelditzen direnez, txarrenak dituztenei ematen omen zaizkie aukeran.

Leitzan berriz, 336 bazkide dira usotan ibiltzen direnak eta hirunaka elkartzuz, 110 postu dituzte Okabio, Oialde-Akotio,

Kaxeta-Loiategi-Albiño-Aizan, Txara, Ixtegi-Usategieta-Mandoegi eta Urkizuko egietan eraikita. Postuen banaketa zozketaz egiten dute. Areson, Perratikietakoak famatzen dituzte eta Leitzan berriz, gehientzuenak Usategietan noiz suertatuko zain egoten dira. Eta gainera hego haizea abiatu baldin bada, gauean ia lorik ere egin gabe, alde!

Eta, hara nola, lehengo batean, Usategietara joateko aukera izan genuen eta zinetan, hego haizeak indarrez jotzen zuela, gainera. Hitzordua goizean-goiz egin ziguten, artean oraindik ilun-putzu zela, 06:30ean. Puntual asko hantxe ziren zain autoarekin: argazki kamara eta zirarentzat dinako motxila ttikia sartu eta mendira. Ehiztari txabolaraino *todo terrenoz* joan ginen eta handik postura, oinez.

50 kiloko zama gainean

Baina gure motxila hutsaren parekoa zen: eskopetak, batek bi eraman zituen, kartutxerak, soineko kartutxerak, egun gutxirako jan-edana... bakoitzak

50na kiloko zama hartu zuen bizkarrean. Bakarren bati ederki asko kosta zitzaion iristea. Diotenez, gustuko lekuan ez omen da aldaparik eta egia izan behar du. Postu batetik bestera doan txenda malkartsuan barrena, ilunbetan, zarakaz estali eta ezkatututako itxitura batera iritsi ginen: «Hau da *ochentá*», esan ziguten. Horrela izendatzen omen baitituzte. Eta bizkarrean eramandako traste guztiak eskuera jarri ondoren, eguna argitzerako prest jarri ziren, jada eguzki aldetik argitasuna nabari zela. Ordurako han hemenka, tiro soinu batzuk entzuten ziren «txoritea ariko dituk» komentatzen zuten beren artean. «Laister hasi behar diate etozten ere, bada», zioten goizeko lehen argiarekin, zutik hesiarren kontra, aurreko pinu muturretara begira.

Usoak aurrez aurre

«Fiu! Fiu!» ziztu hotsa beheko postutik eta «Gorde! gorde!» esanez, makurtu eta begiak erne jartzea batera gertatu ziren. Eta handik segunduko eskasetara, danbategi errenkada luzea botatzea ere bai. Usoak aurrez aurre topatu zutenari ihesi sakabanatu eta pinuen gainetik barrena, ezkatutu egin ziren. «Larri ginuzean!», zioten batek. «Ederki etorri dituk, baina haizea harroskoa zerbilek eta itzuli egiten dituk» besteak. «Honetara ezker, gosaldu egin beharko diagu», hirugarrenak. «Hurrengoak etorri arte badiagu denbora eta». Eta horretantxe utzi genituen.

Jada ilunduta itzuli ziren herriera, uso banarekin eta bihamonerako gelditu berriz ere.

LEITZA ▶ KIROLA

Olazabalek DV Torneoko lehendabiziko partidua du

Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatu behar du gaur, 19:45etik aurrera

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean, Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatu duen partidurekin ekinen dio Mikel Olazabalek, DV torneoko ibilbideari. Zehazki 19:45ean hasiko da pilota jaialdia.

Olazabal gazteak, Patxi Beltelu aldaztarra izan den lagun atzeko koadroetan eta Galindez-Antxok eraturiko bikotearen aurka jokatu beharko dute. Aurrez-aurre izango duten bikote honek, taldekako ligaskan, Errenterian egin zuen lehen saioa Etxeberria-Larrazabalen aurka eta garaipena eskuratu zenez, torneoko bigarren partidua izanen du.

Olazabal aresoarrak «zaila izanen da, baina besteek ere 22 tanto egin beharko dituzte irabaztekoan», zioen itxaropentsu sariketaren aurkezpena egin zutenean eta bere kidearen ezaugarri modura «bizkortasuna eta lanerako oso saiaturia da» aitatu zuen.

Gaurko bikote irabazleak Tolosan izanen du hurrengo hitzordua, Renobales-Galarra bikotearen aurka eta handik finalerdiak jokatzera.

Amazabal pilotalekuko jaialdian, bestalde, helduek ere jokatu dute, bigarren partiduan. Hain zuzen ere, Arretxe eta Zapirainek, Mallabiako saioan irabazle atara ziren Berasaluze eta Apraizen aurka jokatu beharko dute

iragarki laburrak ▶

Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34

Berrobi. Eraikuntza berriko etxe atxiki unifikatutako salgai. 225 m²-ko bizitza, 50 m²-ko garajea eta 40 m²-ko lorategia. Azkeneko biak gelditzen dira. 2005eko

uztailaren entregatzeko.

Gorriti. Eraikitzen ari den etxe unifikatutako salgai. 215 m²-ko bizitza, 40 m²-ko garajea eta 400 m²-ko lorategia. Iruñetik eta Donostiatik 25 minutura.

Leitza. Manuel Lasarte kalean azkeneko bi garaje berriak salgai. Argia, entxufea, ura, desagüea eta auto-garbitokia dute. 19.232,38 euro.

Leitza. Manuel Lasarte kalean hiru logelako pisua alokatzen da.

Leitza. Adur taberna alokatzen da.

Leitza. Eskaera dagoenez, etxebizitzak behar ditugu.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 22a, ostirala ▶ II. urtea

GAURKO
EGURALDIA



goizez

arratsaldeaz

beroena

20

hotzera

14

BIHARKO

EGURALDIA

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

goizez

arratsaldeaz

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Bidania. *Inaxitoren ametsak* bertso emanaldia. 14:30ean, herriko plazan.

Tolosa. *Adictos al regimen* antzezlan. 22:30ean, Leidor zineman. *CQC* telebista programako Tonino eta Juanjo de la Iglesia.

BIDEO EMANALDIK

ETB2an. Anjel Cuervo abenturazale tolosarrak egindako *Nilo, Afrikako altxorra* ikus daiteke bihar, ETB2an 09:00etan.

DEIALDIK

Lizartza. Ezker Abertzalearen batzarra egingo da bihar. Udaletxean, 16:00etan.

Tolosa. AHT Gelditu! elkarlanak Gaztebe eta Gazte Asanbladei bilera batetara deitzen die 19:30ean Kultur Etxean.

Tolosa. Bihar Bonberenean graffiti erakustaldia 10:00etan; skate txapelketa DJ-ekin 16:00etan eta Afrika eta Bad sound system taldeen kontzertua 22:30ean.

Tolosa. Otoitzaldia eta erretiroa Santa Maria elizan, bihar. 10:30etik 12:00etara

parrokiako sakristia handian izango da. Euskaraz.

Tolosa. 36. Abesbatza Lehiaketarako sarrerak salgai daude TEE-CITen (Emeterio Arrese, 2) 17:00etatik 20:00etara bitarte. Salneurria: 7 euro (haurrek 3 euro); amaiera ekitaldian 12 euro (haurrek 6 euro) izango da.

Villabona. Aduna, Villabona eta Zizurkilgo odol emaleak deituta daude 18:30etik 20:30era odola ematera anbulategian.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Maria Luisa Irastorzaren koadroak Ostatuan daude ikusgai.

Ibarrak. XX. mendearren lehen 50 urteetako ogibideen eta

lanbideen erakusketa ikusgai Benito Izagirre kultur etxean. Erakusketa, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara dago zabalik.

Leitza. Pako Zufiaurren argazkiak erakusgai daude Torrea tabernan.

Tolosa. Maria Luisa Irastorzaren olioak Lanbroa tabernan. Hilaren bukaera arte.

Tolosa. Ana Gonzalez Atorrasagastik lore lehorrez egindako konposizioak ditu ikusgai Saikin tabernan.

KIROLAK

GAUR

Esku pilota. (Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Aurrera-Saiaz (Xabier Telletxea) - Zazpi-Iturri (Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 19:30, Bidania).

▶ Aurrera-Saiaz (Koldo Galarraga) - Lagunak (Eskuz banaka. Gazteen 1. maila. 21:30, Elgoibar).

▶ Aurrera-Saiaz (Beñat Iriarte/Xabier Galarraga) - Elordi-Herrigintza (Iñaki Olan/Oaitzol Irure). (Eskuz banaka. Gazteen 2. maila. 21:00, Ikaztegieta).

▶ Aurrera-Saiaz (Imanol Pastrian) - Hernani (Eskuz banaka. Nagusien 1. maila. 21:00, Hernani).

▶ Aurrera-Saiaz (Igor Aranzabe/Eneko Galarraga) - Hernani (Eskuz banaka. Gazteen 3. maila. 21:00, Hernani).

Zesta punta. (Elkarteen Arteko Txapelketa) Beotibarren, 19:00

▶ Beotibar 1 (Telleria/Mujika)-Zumaia 1. Kadeteen maila. Santa Luzian, 19:00

▶ Beotibar 1 (Artetxe-Errondosoro)-Gazteleku 3. (Nagusien maila).

▶ Beotibar 1 (Mujika/Rezola)-Donostia Jai Alai. (Gazteen maila).

▶ Beotibar 2 (Trabazos-Gonzalez)-Zumaia 4. (Nagusien maila).

BIHAR

Areto futbola.

▶ Soto del Real-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko maila. 18:30, Soto del Real).

▶ Ibarra-Ribera de Navarra (1. maila A. 18:30, Belabieta).

▶ Laskorain K.E.-Gsi Bilbao U.P.V. (Lehenengo maila B. 17:30, Berazubi kiroldegia).

Esku pilota. (Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Aurrera-Saiaz 1 (Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)-Anaitasuna. (Eskuz banaka. Nagusien 3. maila. 22:30, Azkoitia).

▶ Aurrera-Saiaz 3 (Unai Aspe/Jon Orbegozo)-Intza. (Eskuz banaka. Nagusien 3. maila. 12:00, Lasarte).

▶ Elordi-Herrigintza (Xabat Ibarguren/Mikel Artola)-Ilunpe. (Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 16:00, Azpeitia).

▶ Elordi-Herrigintza (Iñaki Lobregat/Jokin Zabala)-Andazpe-Pagola. (Eskuz banaka. Kadeteen 3. maila. 16:00, Usturibil).

▶ Elordi-Herrigintza (Iñaki Altuna/Aitzol Galarraga)-Kuku 1. (Eskuz banaka. Gazteen maila. 17:30, Bidania).

Futbola.

▶ Tolosa-Eibar (Jubenilen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).

▶ Alaves-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. 16:00, Compañon).

▶ Tolosa B-Beti Ona (Lurraldeko 1. maila. 17:30, Zubietal).

▶ Intxurre-Danena (Lurraldeko 2. maila. 15:30, Elorri).

▶ Lazkao-Amaroz (Lurraldeko 2. maila. 19:45, Igartza).

▶ Intxurre-Beasain (Gazteen 1. maila. 17:45, Igartza).

Futbol 7.

▶ Ibarra-ko Gazte Asanblada-Callejo / Lamperna. (1. Maila A. 11:00, Felix Garin, 1).

▶ Cesar Rueda Seguros-Lanbroa-Dickens. (1. Maila A. 19:00, Idiazabal, 2).

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.

Zenbakia. 200.a.

Tirada. 5.500 ale.

Gai nagusia. Galtzaundi

aldizkariaren 200. zenbakia.

Beste gaiak. Jon del Rio

txirindulari tolosarraren

denboraldia; AHT-ren aurkako

manifestaldia; Nekazalturimoen

garai berriak; Urepele,

Berastegiko gazteen elkarte...

Argitaratzailea. Galtzaundi

Euskara Taldea.

▶ Nafarroa Etorbidea, 5. Tolosa

▶ 943 65 50 04

▶ galtzaundi@galtzaundi.com

▶ www.galtzaundi.com

Zesta punta.

(Santa Luzia Txapelketa)

▶ Lopez/Odrizola-

Mugerza/Uranga (Alebinen

maila. 16:00, Zumaia).

▶ Gabarain/Izagirre- Sanchez/

Bildarratz (Gazteen maila.

16:00, Zumaia).

ETZI

Futbola.

▶ Beti Gazte-Tolosa (Goren

maila. 16:30, Mastegi).

▶ Vasconia-Billabona (Gazteen

1. maila. 15:00, Martutene).

Futbol 7.

▶ In The line- Bar Shanti

Kirolak (2. Maila A).

Eskupilota.

▶ Zazpitarri 1-Murumendi

(Kadeteak, bikoteka)

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri Berteri -

Aiztondo Hamboskaria.

Zenbakia. 221.a.

Orrialdeak. 32.

Tirada. 2.000 ale.

Gai nagusia. Sagardoaren

inguruko erreportaia.

Beste gaiak. *Inoren ero ni*

taldearen diska berria; Amasa-

Villabonako aparkalekuen

inguruan egindako inkesta...

Argitaratzailea. Larramendi

Kultur bazkuna.

▶ Kale Berria 47, 3. Villabona

▶ 943 69 64 50

▶ aiurri@topgunea.com

▶ www.aiurri.com

ANAITASUNA-ZAZPITARRI

(Nagusiak, bikoteka).

MUSIKA

Orexa. Ruper Ordorika

abeslariaren emanaldia

antolatuta duite bihar Kultur

Hamabostaldiaren baitan.

22:30ean, herriko plazan.

Tolosa. Kauta eta Sei urte.

Bonberenean 22:30ean.

ZINEMA

Berastegi. Yoyes filma izango

da ikusgai, Urepele elkartean.

21:30ean.

Tolosa. *El fuego de la*

vinganza. Bihar Leidor

zineman 19:30ean eta

22:30ean.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



HITZA

BEHARRETARA MOLDATUZ

Gizartea aldatzen den heinean autoak ere aldatu egiten dira; gaur egun familiara eta honen aisialdira egokitu den auto handiak dira gehien saltzen direnak

ANDONI SALDIAS ▶ ASEGURU SALTZAILEA

«BEHARRAK ASETUKO DITUEN ASEGURUA ESKATU»

Gure kezka eta beharrak asetuko dituen aseguru bat eskatzea gomendatzen du Andoni Saldias aseguru saltzaileak

Motorraren munduak aurten utzi dituen emaitzak aztertu nahi izan ditugu. Tolosaldeko hainbat kontzesionariotan azaldu digutenez, autoen salmentek gora egin dute. Pentsatzekoa da aseguru salmentak ere gehitu egingo zirela. Hori horrela izan den jakiteko, Tolosako Saldias Miguel Aseguruetako Artekarietara jo dugu. Andoni Saldias aseguru saltzaileak eman dizkigu argibideak.

Ea komentitzen gaituzun, zergatik aseguratu behar dugu ibilgailua?

Hasteko, legeak agintzen du eta bigarrenik, egindako kalteengatik milioi asko eskatu diezazukete.

Zenbait kasutan ordea, oztopoak izaten dira, dela adingatik, dela ibilgailuaren ezaugarriengatik...

Gu aseguru artekaritza gara eta aseguru konpainia askorekin lan egiten dugu. Konpainia bakoitzak bere arauak ditu, eta egia da, zenbait kasutan aseguruak egiteko arazoak sor daitezke, izan liteke adingatik edo autoaren ezaugarriengatik. Baina esandakoa, konpainia bakoitzak bere arauak ditu. **Aurtengo datuei dagokionez, ibilgailu asko aseguratu al dituzue?**

Bai, auto eta motorrak aseguratzeara derrigorrezkoa denez, hauen aseguruak asko saltzen dira. Beti egongo da legez kanpo ibiliko den jende portzen-taia bat. Baina, lege hausteren bat eginez gero, gertatu liteke hirurehun mila euro ordaindu behar izatea. Kasu horretan aseguruak ez baduzu, zure patrimoniotik ordaindu behar duzue, eta hori diru asko da.



EDURNE AYUSO

KONPAINIAK

Gu asegur artekaritza bat gara eta aseguru konpainia askorekin lan egiten dugu; bakoitzak bere arauak ditu

Aseguru bat erosterakoan zeri erreparatu behar genioke?

Lehenik eta behin, aseguru konpainia ona kontratatatu behar da.

Konpainia ona... Telebistaz iragartzen dizkigutenak onak al dira? Fidatu behar al dugu? Kasu batzuetan prezioak merkeagoak dira, ez beti. Konpainia hauetan dena telefonoz egiten da, eta hor dago prezioen sekretua, ez dago bitarteko-

SALMENTAK

Auto eta motorrak aseguratzeara derrigorrezkoa denez, hauen aseguruak asko saltzen dira

rik. Baina noski, arazoren bat izanez gero, telefono bat baino ez duzu aurrean eta arazoak sor litezke.

Zein aseguru konpainia kontratatatu erabaki ostean, zer egin behar da?

Gure kezka eta beharrak asetuko dituen aseguru bat eskatu behar dugu. Gure beharretara egokitutako aseguru horren prezioa ona izatea ere garrantzitsua da, baina ez garrantzitsuena. Autoa berria denean,

komenigarria da ibilgailua ondo babestea, arrisku guztiak hartu behar dira kontuan erosteraoan.

Aste honetatik aurrera, autoa gidatzeko baimena hiru urtez baino gehiagoz dutenek, 125 cc arteko motor txikiak gidatzeko baimena ere izango dute. Honek zertan eragingo dizue?

Nire ustez, horren ondorioz motorren salmenta igo egingo da eta horrekin batera baita aseguruena ere. Denborarekin ikusiko da prezioekin zer gertatzen den.

Puntukako gida baimena ezartzen bada, zertan eragingo dizue?

Orain arte ere baguenen karneta galtzen den kasuetarako aseguru berezi bat. Ibilgailua lanerako erabiltzen duten bezeroak dira gehienbat. Aseguru horrekin, karnetik gabeko egun bakoitzeko diru kopuru bat jasotzen dute. Asko saldu den aseguru da eta puntukako gida baimena ezartzen bada, gehiago salduko dela uste dute.

PUNTUKAKO GIDA BAIMENAZ ZEIN IRITZI DUZU? ▶

JUAN ATXUKARRO
TAXI GIDARIA



«Ez dago ondo, ez da gauza bera taxi gidaria edo gidari soila izatea. Bezero batek aireportura garaiz iritsi behar duela esaten badit, edo erditzeaz badago, zer egin behar dut? Gainera, telefonoa erabiltzen ez badigute uzten? Egun osoa pasatzen dugu gidatzen, legeak ez luke horren estua izan behar».

IGNACIO MIGUEL
TOLOSA AUTOSKOLAKO
IRAKASLEA



«Oraindik proposamen bat da. Beste herrialde batzuetan frogak egin dituzte, baina ez dago ezer zehatzik. Martxan jarriz gero ona litzateke. Baina betiko arazoa izango da, bigilantzia falta. Orain ere lege haustean egiten dira eta ez dago bigilantziarik».

ZIGOR MENDIZABAL
GURUTZKO GORRIKO LARRIALDI
TEKNIKARIA



«Argi dago istripuen gehiengo alkoholak eta abiadurak eragiten dituztela. Zer bait egin behar da, eta orain arteko neurriak nahikoa ez badira irtenbide egokia izan liteke. Hala ere, ibilgailuekin lan egiten dugunontzat beste arauren bat egon beharko litzateke. Autoaz egindako lege haustean ondorioz hamabi puntuak galtzen baditugu, ezin dugu anbulantzia gidatu, ezin dugu lanik egin».

JON KEPA GALLO
KAMIJO GIDARIA



«Lege haustean eginez gero normala da zigorrak ezartzea. Baina ibilgailuetatik bi ziren jendearentzat legeak malguagoa izan beharko luke. Adibidez, ibilgailu bakoitzak bere gida baimen propioa izan beharko luke».

GARAJE SANTA LUCIA

AGENCIJA OFIZIALA **NISSAN** **JONSERED** **MULTILIFT**

24 orduko GRUAZERBITZUA

Santa Luzia auzoa, 1• Madrid-Irun errep. **TOLOSA**

943 65 38 74 **24 ordu**
943 65 34 91 **GARAJEA**
943 80 60 20 **PARTIKULARRA**
FAXA 943 65 39 85

A/O
—Aseguru Agentzia—

San Frantzisko Ibiltoikia, 41 • 20400 **TOLOSA**
Tel.: 943 69 80 54 • Faxa: 943 69 81 14

Allianz

ASEGURU AGENTZIA

Nafarroa Etorbidea, 10 • 20400 **TOLOSA**
Tel.: 943 65 14 44
Faxa: 943 65 58 19
Posta: zubeldia_aluna.pa@allianz.es
www.agenteallianz.com/zubeldia_aluna

MOCOROA Y LACUNZA
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.

ASEGURU ARTEKARITZA

Gernikako Arbola, 3-behea
20400 **TOLOSA**
Tel.: 943 65 14 35 • Faxa: 943 69 81 09
Posta: ML-SEG@TELELINE.ES

Zubeldi Ahoikuntza

Laskurain, 8 behea • **TOLOSA**
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxe: 943 65 18 77